

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Salestarren Ikastetxeko jarduna UPS izendatu du

Kongregazioaren zentro berria planteatu du Eguesen, eta egoitzetara bideratutako jarduna gaur egungo ikastetxearen orubean, Iruñeko Aralar kalean


Lunes, 09 de mayo de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, Salestarren Ikastetxeko jarduna Udalez gaindiko Plan Sektorial izendatzea adostu du. Ikastetxea Eguesibarrera lekualdatuko da, eta gaur egungo ikastetxearen orubean, Iruñeko Aralar kalean, egoitzetara bideratutako jarduna planteatu da. Orube hori Viviendas de Navarra SA sozietate publikoak eskuratu du. Ekimena San Juan Bosco kongregazioak, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eta VINSAk sustatu dute.

Salestarren gaur egungo ikastetxearen instalazioak zaharkituta daude ikasleei behar den arreta eskaintzeko. Hori dela bide, Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak, Egueseko Udalak eta Salestarren Kongregazioak, joan den urtarrilean, lankidetzeta-protokoloa sinatu zuten, Eguesibarreko zentroa 2013-2014 ikasturterako prest egoteko eta Iruñean aurreikusitako jarduna egiteko.

Ikastetxe berria (51.171 metro koadroko azalera izango du) Olatzeko eta Sarrigurengo lurretan kokatuko da, Iruñerriko egoitza-inguru garrantzitsuenetako batean. Sarrigurengo Ekohirian kokatuta egongo da, eta leku horretan mota ekonomikoko jarduerak ere planteatu dira, besteak beste, merkataritza-gune bat, hirugarren sektoreko erabileretarako bi partzela eta ekipamendu polibalenterako partzela bat. Sarbiderako bide nagusia planteatu da, Europar Batasuna etorbidearen luzapena izango dena. Jardun horretan, oro har, Egueseko Udal Plan Orokorrean ezarritakoa mantenduko da.

Iruñean eragina duen UPSren esparrua salestarrek gaur egun jarduera garatzen duten orubean kokatzen da. 58.842 metro koadroko azalera, egoitza-erabilerak eta 3.000 metro koadroko zuzkidura publikoa (zentro zibikoa) planteatu dira. Etxebizitza guztiak libreak izango dira (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen 52.8 art. oinarri hartuta), baina sortuko diren plusbaliak, protokoloan



Salestarren Ikastetxearen proiektua Sarrigurenen (Eguesibar)

ezarritakoaren arabera, etxebizitza babestua sustatzera bideratuko dira. Iruñeko jarduna eta hiriko Udal Plan Orokorra guztiz koherenteak dira.